

ERREGE SANTUEN ESKOLAN

Doinua: "Uso zuria"

1

Urtarrilak seigarrena
Erregenak dakarrena.
Azal-itxurak baztatu eta
barrukoa ederrena:
bidera urten eta aurkitu
gu salbatzen datorrena.

2

Lotan ez dago izarrik,
egon behar da itzarrik.
Erregeak lez bizi diranak
ikusten dabe bakarrik;
adi bizi ta prest jarraitzeko,
ez dauke bultza beharrik.

3

Izarra gordeta ilun,
mila arrisku edonun.
Errez nahiz nekez, aurrera beti
zintzoa hor da ezagun;
itxaropenez jardun ezkeru
laster egingo da egun.

4

Otoi eginda jokatu
eta laguntza eskatu.
Horra barrero izarra dizdiz
zeru goian bistaratu;
Errege jaunak pozaren pozez
ez dira_alperrik nekatu

5

Bidea luze, gogorra,
baina oparia horra:
Aita ta Ama ondoan eta
askan *mutiko* koxkorra;
ahuspeztu eta gurtuten dabe
aurkitu daben altxorra.

6

Mila laztan ta opari
Jainko ume eginari.
Bihotzak bor-bor, eskuak zabal,
pozarren Joxe ta Mari;
Jesus aurkitu dauan bateri
poza dario ugari.

7

Agur bildur ta zalantza,
Belenen a zer mudantza!
Bide barrria hartuta doaz
bizkor euren herrirantza;
aurkitu daben Jesusen barri
iragarten ezin kantza.

8

Urtarrila nahiz otsaila
beti "Erregen" dedila.
Hartu ta emon bizi ezkeru,
betetzen da kutxatila;
"alkar errege" izan gaitezkan
nori on egingo bila.

A.Martzel

